

Berrobi

### UDALBATZARRERAKO DEIALDIA

Berrobiko Udalak 2016ko maiatzak 31an iluntzeko 19:30etan Udaletxeko Pleno Aretoan egingo duen Ezohiko Udal Batzarrera dei egiten dizut.

### AZTERGAIAK

1) Ekainaren 26ko Hauteskunde Orokorretako mahaikideek izendatzeko zozketa.

2) EH BILDU Mozioa. Tolosaldea osasungintza ereduaz.

Berrobi, 2016ko maiatzak 26

ALKATEAK

Izp.: Joseba Iñigo Aiertza Mujika

### CONVOCATORIA PARA EL PLENO

Convocatoria para la Sesión Extraordinaria del Ayuntamiento de Berrobi, que se celebrará en esta Casa Consistorial el día 31 de mayo de 2016 a las 19:30 horas.

### ORDEN DEL DIA

1) Sorteo para designación de los miembros de las mesas electorales para las Elecciones a Cortes Generales de 26 de junio.


2) Moción de EH BILDU. Modelo de sanidad de Tolosaldea.

Berrobi, a 26 de mayo de 2016

EL ALCALDE

Fdo.: Joseba Iñigo Aiertza Mujika





Berrobi

## UDALBATZARRAREN AKTA

Data: 2016ko maiatzak 31

Hasierako ordua: 19:30

Amaiera ordua: 20:00

Lekua: Berrobiko udaletxeko Batzar-aretoa.

Bertaratuak:

Joseba Iñigo Aiertza Mujika, Alkatea  
Jose Odriozabala Garmendia, zinegotzia  
Erlantz Allur Aramburu, zinegotzia  
Igone Saldias Uranga, zinegotzia  
Larraitz Esnaola Etxeberria, zinegotzia

Ana Larrarte Kerejeta, idazkaria.

Alkateak bilerari hasiera eman eta gai-zerrendako puntuei heltzen die.  
Esan-eginak eta erabakiak

## 1) EKAINAREN 26ko HAUTESKUNDE OROKORRETAKO MAHAIKIDEEK IZENDATZEKO ZOZKETA.

2016ko ekainaren 26ko Udal eta Batzar Nagusietarako Hauteskundeak direla eta, egintza honetan Hauteskunde-mahaiko kideak izendatzeko zozketa egiten da, emaitza honakoa izanik

### MAHAIBURUA :


Titularra : Otaegi Zubiri, Amaia  
1.Ordezkoa : Segurola Azkonobieta, Nagore  
2. Ordezkoa : Mendizabal Icutza, Maria Aranzazu

### 1.MAHAIKIDEA

Titularra : Moragil Aparicio, David  
1.Ordezkoa : Iturriza Insausti, Maria Jesús  
2. Ordezkoa : Peña Gil, Modesto Manuel

### 2. MAHAIKIDEA

Titularra : Ibañez Zabalegi, Amaia



Berrobi

- 1.Ordezkoa : Zubelzu CAlderdi Irastorza, Amaiur
- 2.Ordezkoa : Marko Apeztegia, Iñaki

## **2)EH BILDU MOZIOA. TOLOSALDEA OSASUNGINTZA EREDUAZ.**

Lehenik eta behin, Idazkariak EHBildu Udal taldeak aurkeztu duen mozioa irakurri du. Hitzez hitz honela dio:

“ TOLOSALDEA OSASUNGINTZA EREDUAZ

2011tik Euko Jaurlaritzak lankidetzaz hitzarmen bat eduki du Inviza ospitale pribatuarekin (Asuncion klinika aurrerantzean) Tolosaldeko ospitale erreferentziala izateko. Nahiz eta Jaurlaritzatik informazio gehiegi ez helarazi, behin baino gehiagotan salatu dugu osasun arreta izaten ari den gainbehera etengabea.

Honetaz gain, bost urte luze hautean, ezagunak izan dira Asuncion Klinikak historikoki duen lau milioi euroko zorra ez ordaintzeko egindako trikimailu mordoa. Hemen ere argi eta garbi utzi dugu gure osasun arreta erdigunean egon behar duela eta ez irabazi ekonomikoaren menpe.

2016ko azaroan Jaurlaritzak Asuncion klinikarekin duen hitzarmena bertan behera geratzen da. Momentu historiko baten aurrean gaude. Tolosaldeko herritar eta eragileok sekulako aukera dugu eskualdean nahi dugun osasun arreta erabakitzeke. Urte luzez eskatu dugu eskualdeko eragilez osatutako mahai bat osaketa eta Jaurlaritzak behin eta berriz ateak itxi dizkio aukera honi.

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak Tolosaldeko herritar eta eragileon bizkar, aldebakartasunez osasun sistema pribatua erdigunean duen sistema bat inposatu nahi digu berriz ere. Hasieratik gure ezezkoa adierazi genion aukera honi eta orain, bost urte geroago egoera hau luzatu nahiko dute Lakuatik.

Horregatik, ondoko eskaera hau egin nahi dio Berrobiko udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari:

- 1.- Mahai gainean jar ditzala bost urtez indarrean egon den konbenioaren balorazio tekniko zein ekonomikoa xehetasun osoz balorazio osatu bat egiteko aukera izateko.
- 2.- Ireki dezala prozesu partehartzaile bat eskualdeko udal eta herri eragileekin denon artean aurtengo azarotik aurrera jaso nahi dugun osasun arreta denon artean erabakitzeke.”

Ondoren, Udalbatzak onartu du mozioa zinegotzi guztien adostasunarekin.

**Eta, aztertzeke bestelako gairik ezean, Udalbatza amaitutzat eman da, eta jorratutako gaiak eta hartutako erabakiak aktan jaso daitezke, nik, idazkariak, agiri hau luzatu dut alkatearen oniritziarekin.**



IDAZKARIA

